# 8. AKTA

2003ko ekainaren 11n ospatutako **APARTEKO GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiaklo Hirian eta bertako Udaletxean, bi mila eta hiruko ekainaren hamaikan, 1986ko azaroaren 28ko Entitate Lokalen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko 36.1 artikuluaren arabera, lehenengo deialdian eta Juan Carlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Idazkaria bertan delarik, kargua uzten duten hurrengo zinegotziak bildu dira, azkeneko batzarraldiko akta onartzeko:

Joseba Xabier Portugal Arteaga j.
Ricardo del Pozo Gil de Albornoz j.
Angel Ouviña Vidal j.
Obud Lorenzo de Dios an.

arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Aparteko Gobernu Batzordea ospatzeko.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman da 12:00etan, gero gaizerrendako gaia aztertzeari ekinez.

**Puntu bakarra: Aurreko batzarraldietako aktak onartzea.**

03-5-22 eta 03-6-9ko, hurrenez hurren, 6. eta 7. aktak kontsiderazioan jarririk, Gobernu Batzordeak erabaki du bere osoan onartu eta dagokion Akta Liburuan transkribatzea.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 12:15etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.